

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1232

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2012. urterako Euskadi Ikerketa Sarirako epaimahaia izendatzeko, Zientzia eta Teknologia modalitatean.

Azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuak, Ikerkuntzarako Euskadi Saria arautzen du, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Azaroaren 30eko 323/2010 Dekretuak, seigarren artikuluan, honako hau esaten du:

1.– Urtero eratuko da epaimahai bat, Ikerkuntzarako Euskadi Saria, dekretu honen 1.2 artikulua ezarri duenaren arabera dagokion modalitatean, ebazteko.

2.– Ikerkuntzarako Euskadi Sarirako epaimahaikideak euren jardun-eremuetan izen handia dutenak izan behar dute; bost-zazpi kide izango dira, eta horietako bat epaimahaiburua izango da.

Epaimahaiko osatzean, ahal den neurrian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunezko printzipioa errespetatuko da, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen –Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaren aldekoaren– 20.6 artikulua arabera.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu baten bitartez emango da epaimahaiko kideen berri, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, gutxienez, epaimahaiek epaia eman baino bost egun baliodun lehenago.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eranskinean azaltzen diren irakasleak 2012. urteko Euskadi Ikerketa Sariko epaimahaikide izendatzea, Gizarte Zientziak eta Humanitate modalitatean.

2. artikulua.– Agindua hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

3. artikulua.– Administrazio bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturakoa sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

ERANSKINA

Euskadi Ikerketa Sariko epaimahaikideak (2012. urterako) Zientziak eta Teknologia modalitatean:

Guillermo Velarde jn.

Carlos López Otín jn.

M.^a Jesús Esteban Galarza and.

Felix Yndurain jn.

María Vallet Regí and.